

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**6305** *6/2021 Errege Lege Dekretua, apirilaren 20koa, COVID-19ak eragindako pandemiak kaltetu dituen enpresei eta autonomoei laguntzeko neurri osagarriak hartzen dituena.*

I

COVID-19aren pandemiak enpresa eta autonomo askoren jarduera ekonomikoan izan duen eragin negatiboak diru-sarrereren murrizketa handia ekarri die; horrek zuzenean eragin du haien likidezian eta kaudimenean, eta, ondorioz, beste enpresa batzuekin eta administrazio publikoekin dituzten betebeharreri aurre egiteko gaitasunean, hala tributu-betebeharrak nola tributu-izaerarik ez dutenak betetzeari dagokionez.

Estatuko Administrazio Orokorrak emandako maileguak itzultzetik eratorritako zor publiko ez-tributario eta ez-aduanakoei dagokienez, ordaintzera behartuta daudenentzako finantza-laguntzako neurri nagusiak maileguak eman dituzten ministerio-sailen esparruan onartu dira.

Estatuko Administrazio Orokorrak emandako laguntzen eta maileguen onuradunei finantza-laguntza emateko orain arte onartutako neurri guztiak maileguak eman dituzten ministerioen eskumen-eremura mugatu dira, hau da, mugaeguneratu gabeko kuotetara. Hala ere, pandemiak beren jardueran eragindako inpaktu negatiboaren ondorioz, kasu gehienetan maileguen onuradunek ezin dituzte ordaindu jadanik mugaeguneratuta dauden kuotak, ministerio emaileak epemugen egutegian berriz aztertu ezin izan dituenak neurrien aplikazio-eremutik kanpo zeudelako edo Ekonomia eta Ogasun ordezkariak geroratu edo zatikatu zituztelako COVID-19aren osasun-krisiaren aurretik eta, beraz, aipatutako neurriak onartu aurretik; izan ere, horren ondorioz ministerioen eskumen-eremutik kanpo geratu ziren.

Aipatutako ezintasunari beste zailtasun batzuk ere gehitu zaizkio, bai finantzaketa-arlokoak bai kreditu-erakunde edo elkarren bermerako sozietate baten abal baten edo kauzio-aseguruko ziurtagiri baten bermea lortzekoak, laguntza publikoen edo maileguen onuradun izan ziren enpresa horietako askoren itzulketaren ondoriozko tributuez besteko zorrak geroratzea eta/edo zatikatzea bermatzeko.

Uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuak onartutako Zerga-bilketako Erregelamendu Orokorraren 44. artikulua eta hurrengoek arautzen dute Ogasun Publikoarekiko zorren ordainketa geroratzeko eta zatikatzeko prozedura. Zehazki, 46.5 eta 50. artikuluek bermearen dispensa osoa edo partziala lortzeko aukera aurreikusten dute, zuzenbide publikoko zorrak geroratzeko eta zatikatzeko ebazpenetan.

Hala eta guztiz ere, produkzio-sarea zaintzeko eta enpleguari eta jarduerari eustea bermatzeko aurretik hartu diren neurrien ildo beretik, eta kontuan hartuta COVID-19aren egungo pandemiak ordainketa egitera behartuta daudenengan eragiten ari den salbuespeneko egoera, beharrezkoa da tributuz besteko betebeharreri erantzuna ematen laguntzeko neurriei bultzada gehigarri bat ematea, Ekonomia eta Ogasun ordezkariak geroratzeak eta zatikatzeak bermea dispensatuta emateko prozedura malgutuz.

Hori dela eta, errege lege-dekretu honek salbuespeneko eta aldi baterako prozedura bat onartzen du 2021eko eta 2022ko ekitaldietarako, Ekonomia eta Ogasuneko ordezkariak Estatuko Administrazio Orokorrak emandako laguntzak edo maileguak itzultzearen ondoriozko izaera publikoko zorrak, tributukoak edo aduanakoak ez direnak, geroratzeko eta/edo zatikatzeko, bermetik salbuetsita. Helburua da Ekonomia eta Ogasuneko Ordezkaritza dokumentazioa eskuratzea, enpresen zailtasun ekonomiko eta finantzarioen izaera iragankorra eta etorkizuneko bideragarritasuna aztertzeko judizio-elementuak emango diona, batez ere eskatzaileak aurkeztuko duen bideragarritasun- edo negozio-plan baten bitartez, zeina Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako

auditore batek egiaztatuko baitu. Kasu horietan, Ordezkaritzek zorra ordaintzeko bi urte arteko guztizko gabealdia eman ahal izango dute mugaegunetik aurrera, baita bi urte arteko zorraren ondorengo zatikapena ere.

## II

2021eko martxoaren 12an, COVID-19aren pandemiari aurre egite aldera enpresen kaudimena bultzatzeko aparteko neurriei buruzko martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretua onartu zen, ekoizpen-sarea babesten jarraitzeko, ekonomian egiturazko inpaktua saihesteko eta enplegua babesteko.

Errege lege-dekretu horrek onartutako neurrien artean (11.000 milioi euro), nabarmentzekoa da autonomoentzako eta enpresentzako zuzeneko laguntzen COVID lerroa sortzea, 7.000 milioi euroko zenbatekoarekin, autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoei bideratuta, pandemiaren eragin handiena jasaten duten sektoreetako autonomoentzako eta enpresentzako laguntzak bidera ditzaten.

Sektore kaltetuenak nazio-mailako irizpide objektiboetan oinarrituta identifikatu ziren, hala nola sektore bakoitzean enplegu-erregulazioko espedientean dauden langileen ehunekoa –pandemiaren ondorioz enpleguan duen eragina erakusten du– eta sektore bakoitzean 2020ko maiatzetik 2021eko martxoaren 1era arte lan-merkatura itzuli diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetako langileen ehunekoa.

Martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretuak adierazle horiek erabiltzen zituen enpresen kaudimena indartzeko laguntzak jarduerari eta enpleguari dagokienez eragin handiena duten sektoreetan kontzentratzeko. Hala ere, zenbait eskualdetan eragin berezia jasan duten sektoreak egon daitezke, nahiz eta nazio-mailan ez gainditu martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretuko irizpide objektiboaren definizioan ezarritako atalaseak.

Eskualdekako idiosinkrasia horrek komenigarri egiten du autonomia-erkidegoak eta Ceuta eta Melilla hiriak nolabaiteko malgutasun-marjina izatea aipatutako Errege Lege Dekretuaren I. eranskineko COVID lerroaren kargurako laguntzak jasotzeko sektore hautagarrien zerrendan beren lurraldean bereziki kaltetutako beste sektore batzuk sartu ahal izateko, bakoitzerako ezarritako esleipen osoaren barruan, betiere.

Era berean, salbuespen gisa, autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek laguntzak eman ahal izango dizkiete enpresa bideragarriei, nahiz eta 2019an emaitza negatiboa izan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortzean edo, salbuespenezko inguruabarren ondorioz, sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren oinarria negatiboa izan.

Europar Batasunaren denbora-esparruan ezarritako mugak zehazten duenez, laguntzak 2021eko abenduaren 31 baino lehen eman behar dira, eta, beraz, bi aldaketa horiek premiaz sartzeko komeni da, autonomia-erkidegoen laguntza-deialdietan aurreikuspen hori sartu ahal izateko.

## III

Proposatzen diren neurriek, haien izaera eta xedea ikusirik, bete egiten dituzte errege lege-dekretuak onartu ahal izateko Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua eskatzen dituen aparteko eta presako beharrezko baldintzak.

Lehen aipatutako Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua arabera, Gobernuak lege-dekretuak eman ditzake, «aparteko eta presazko beharrezko dagoenetan», baldin eta xedapenok ez badute eraginik ez Estatuaren oinarritzko erakundeentzako antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, betebehar eta askatasunetan, ez autonomia-erkidegoen araubidean, ez hauteskunde-zuzenbide orokorrean.

Lehenengo alderdiari dagokionez, lege-mailako tresna arauemaile horren erabilera beste inguruabar batzuek baldintzatzen dute; izan ere, aurreikusten zailak diren arrazoiengatik, berehalako araugintza-ekintza behar da, ohiko bidetik edo legeak parlamentuan izapidetzeko presazko prozeduratik behar izaten dena baino epe laburragoan (Konstituzio Auzitegiaren 6/1983 Epaia, otsailaren 4koa).

Konstituzio Auzitegiak deklaratu duenez, aparteko eta presazko beharrizan-egoera hori elementu ugaritatik ondoriozta daiteke, besteak beste arauaren zioen azalpenean ageri direnetatik (Konstituzio Auzitegiaren 6/1983 Epaia, otsailaren 4koa). Bestalde, errege lege-dekretua erabiltzeko aukera ematen duen aparteko eta presazko beharrizan-egoeraren eta bertan jasotako neurrien artean «zuzeneko edo kongruentziazko» harremana egon behar da. Beraz, aparteko eta presako beharrizanaren egoera izateko, Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 7ko 61/2018 epaiak (4. oinarri juridikoa) eskatzen du, batetik, «Gobernuak tresna hori onartzeko aztertu dituen zioak era esplizituan eta arrazoituan azaltzea», hau da, presazko egoera azaltzea; eta, bestetik, «ezinbesteko lotura egon behar da zehazten den presako egoeraren eta egoera horri erantzuna emateko hartzen den neurriaren artean».

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren arabera, tresna zilegia da, baldin eta presako legegintza justifikatzen duen helburua honako hau bada: Gobernuaren helburuen barruan, egoera jakin bat diruz laguntzea, aurreikusteko zailak diren arrazoiak direla-eta berehala araugintza-ekintza bat egin behar bada, legeak Parlamentuan izapidetzeko bide normalak edo presako prozedurak eskatzen duena baino epe laburragoan, are gehiago prozedura hori Gobernuaren esku ez badago. Helburuak halakoa izan behar duela behin eta berriz galdegin du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez: otsailaren 4ko 6/1983 epaia, 5. oinarria; urtarrilaren 17ko 11/2002 epaia, 4. oinarria; uztailaren 3ko 137/2003 epaia, 3. oinarria, eta uztailaren 7ko 189/2005 epaia, 3. oinarria:

Errege lege-dekretu hau onartzeko aparteko eta presako beharrizana judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mendean dago, eta horiek Gobernuari dagozkie (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 142/2014, irailaren 11koa, 3 oinarri juridikoa); erabaki horrek, zalantzarik gabe, jarduteko lehentasun politikoak antolatu beharra dakar (Konstituzio Auzitegiaren 2019ko urtarrilaren 30eko epaia), segurtasun juridikoan eta osasun publikoan jarriz arreta. Azaldu berri diren egokitasun-arrazoiek erakusten dute errege lege-dekretu hau onartzeak ez duela esan nahi inolaz ere konstituzio-tresna hori abusuz edo modu arbitrarioan erabili denik (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 100/2012, maiatzaren 8koa, 8. oinarri juridikoa; 237/2012, abenduaren 13koa, 4. oinarri juridikoa; 39/2013, otsailaren 14koa, 5. oinarri juridikoa). Aitzitik, azaldutako arrazoi guztiek erruz eta arrazoi justifikatzen dute arau hau ezartzea (Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 31ko 29/1982 epaia, 3. oinarri juridikoa; abenduaren 2ko 111/1983 epaia, 5. oinarri juridikoa; urriaren 20ko 182/1997 epaia, 3. oinarri juridikoa).

Berriro esan behar da gure herrialdeak nazioarteko garrantziko osasun publikoko larrialdia dela-eta aurrean duen egoera eta orain dela gutxi deklaraturako alarma-egoera eta horren luzapena nahikoa arrazoi direla hainbat neurri hartzeko aparteko eta presazko beharrizana justifikatzeko. COVID-19a geldiarazteko eta hari aurrea hartzeko egoera honetan, presakoa eta beharrezkoa da epidemia eten eta haren hedapena eragozteko osasun publikoa babesteko, eta aldi berean neurri ekonomikoak hartzea epidemiaren ondorioei aurre egiteko.

Beraz, pandemiak eragindako ondorio ekonomiko txarrak arindu ahal izango dira arau honetan jasotako neurrien bidez, zeinak baitira, batetik, Estatuko Administrazio Orokorrek emandako laguntzen eta maileguen onuradunei finantza-laguntza ematea, eta, bestetik, autonomia-erkidegoak eta Ceuta eta Melilla hiriak gaitzea, nolabaiteko malgutasun-tartea izan dezaten beren lurraldean bereziki kaltetuak izan diren beste sektore batzuk zerrendan sartzeko, aipaturako martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretuaren I. eranskinean ezarritako COVID lerroaren kargurako laguntzak jaso ditzakeen sektore gisa.

Esan behar da, gainera, errege lege-dekretu honek ez duela eraginik izango Estatuaren oinarritzko erakundeen antolamenduan eta Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ezta autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskondeei buruzko zuzenbide orokorrean ere.

Ildo horretan, eta Espainiako Konstituzioaren I. tituluan araututako herritarren eskubide, betebehar eta askatasunei eragiteko debekuari dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren doktrina oso sendo batek, Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 31ko 139/2016 epaiak (6.

oinarri juridikoa) laburbiltzen duenak, honako hau adierazten du: «1.a) (...) auzitegi honek baztertu egin du muga horren interpretazio zabalago bat, lege-dekretuaren figura hustea ekarriko lukeena, eta hura baliorik gabe uzten duena Konstituzioaren I. tituluan jasotako gai ei buruzko edozein alderdi eragin handiagoarekin edo txikiagoarekin arautzeko; 2.a) Klausula murriztailea lege-dekretuaren figura ezerezera ez murrizteko moduan ulertu behar da; beraz, Konstituzioak debekatzen duena da eskubide, betebeharrak eta askatasun horien araubide orokor bat arautzea edo eskubide horietako batzuen edukiaren edo funtsezko elementuen aurka egitea (Konstituzio Auzitegiaren 111/1983 epaia, abenduaren 2koa, geroagoko beste batzuek berretsia, 8. oinarri juridikoa); 3.a) Auzitegiak ez du soilik aztertu behar lege-erreserbaren printzipioa nola adierazten den gai jakin batean, baizik eta aztertu behar du lege-dekretuak Espainiako Konstituzioaren I. tituluan arautzen den eskubide, betebeharrak edo askatasunen bat "ukitu" duen, eta, horretarako, kontuan hartu behar du kasu bakoitzean ukitutako eskubide, betebeharrak edo askatasun horren konstituzio-konfigurazioa, bai eta konstituzio-testuan duen kokapen sistematikoa eta kasuan kasuko arauketa zehatzaren izaera eta irismena ere (...).».

## IV

Errege lege-dekretu honetan, gainera, kontuan hartu dira beharrezkoaren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioak, hala agintzen baitu Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua.

Ondorio horietarako, agerian geratzen da premia- eta efikazia-printzipioak betetzen direla; izan ere, ezartzen diren neurrien oinarrian interes orokorra dago, eta errege lege-dekretua da hori lortzeko tresnarik azkarrena. Arauak betetzen du proportzionaltasun-printzipioa, ez baitu eskubiderik murrizten, ezta betebeharririk ezartzen ere. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa ere betetzen du, eta koherentea da gainerako ordenamendu juridikoarekin. Gardentasunaren printzipioaz den bezainbatean, araua salbuetsita dago kontsulta publikoaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak betetzetik, zeren eta lege-dekretuak izapidetzeko eta onartzeko ez baitira aplikatu behar. Azkenik, efizientzia-printzipioa dago; errege lege-dekretu honetan ahaleginak egin dira arauak herritarrei ahalik eta administrazio-zama txikiak eragiteko.

Errege lege-dekretu hau Konstituzioaren 149.1 artikuluan 13. eta 14. zenbakietan ezarritakoaren babespean ematen da, Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen baitiote, hurrenez hurren, jarduera ekonomikoaren plangintza orokorrari buruzko oinarrien eta koordinazioaren gainean eta Ogasun orokorraren gainean.

Horrenbestez, Espainiako Konstituzioak 86. artikuluan arautzen duen baimenez baliatuz, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko eta Ogasuneko ministroek proposatuta eta Ministro Kontseiluak 2021eko apirilaren 20ko bileran eztabaidatu ondoren, hauxe

## XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. *Ekonomia eta Ogasun ordezkariak geroratzeak eta/edo zatikatzeak onartzea, bermearen dispentsarekin, Estatu Administrazio Orokorrek emandako laguntzak edo maileguak itzultzearen ondorioz sortutako zor publiko ez-tributarioen eta ez-aduanakoaren ordainketarako.*

1. Estatu Administrazio Orokorrek emandako laguntzak edo maileguak itzultzetik eratorritako zor publiko ez-tributarioak eta ez-aduanakoak ordaintzera behartuta daudenek, zor horien geroratzea eta/edo zatikatzea eskatu ahal izango dute, hurrengo ataletan jasotzen diren baldintzetan, 2021eko eta 2022ko ekitaldietan, betiere COVID-19ak eragindako osasun-krisiak eta haren hedapena kontrolatzeko hartutako neurriek ordaindu behar duenari jarduerarik gabeko aldiak, salmenta-bolumenaren murrizketa edo balio-kateko hornidura-etenak eragin badizkiote.

Eskaerak izan daitezke bai borondatez ordaintzeko aldian dauden zorren gainekoak, bai Ekonomia eta Ogasun Ordezkaritzek aldez aurretik geroratu eta/edo zatikatu dituzten zorren gainekoak, betiere ordaintzeko betearazpen-aldian ez badaude. Aldez aurretik geroratzeak eta/edo zatikatzeak berriz aintzat hartzen badira, eskaera izapidetzeko onartzeak automatikoki etengo du eragindako zorren bilketa kudeatzeko prozedura, eskaera aurkezten denetik dagokion ebazpena eman arteko ondorioekin, eta, ordainketa banku-erakunde batean helbideratuta badago, helbideratzea automatikoki baliogabetuko da kobratzeko oraindik bidali ez diren epeetarako.

2. Errege lege-dekretu honetan xedatutakoari heltzen dioten eta ordaintzera behartuta dauden pertsonen borondatezko epean atzeratzeko eta/edo zatikatzeko eskaera egingo dute Ekonomia eta Ogasuneko Ordezkaritza eskudunean, uztailearen 29ko 939/2005 Errege Dekretuak onartutako Zerga-bilketako Erregelamendu Orokorren 45. artikuluan xedatutakoaren arabera eta erregelamendu horren 46.1.a) artikuluan ezarritako epean.

3. Geroratzeak eta/edo zatikatzeko eskaerak datuak jasoko ditu, eta Zerga-bilketako Erregelamendu Orokorren 46. artikuluen 2., 3.b), c) eta 5. zenbakietan aurreikusitako beharrezko dokumentuak erantsiko ditu.

Eskabidearekin batera, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

a) Justifikazio-memoria bat, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz zorrak indarreko egutegian edo epemugan ordaintzeko zailtasuna behar bezala arrazoitzen duena. Era xehatua justifikatu beharko da zailtasun horien jatorria pandemia bera eta haren hedapena kontrolatzeko hartutako neurriak direla, eta modu kualitatibo eta kuantitatiboan azalduko da kaltea nola gertatu den.

b) Eskatzaileak dituen zerga-zorrei eta Gizarte Segurantzarekiko zorrei buruzko ziurtagiria, interesdunak hala eskatuta organo eskudunek emana, bai eta administrazio publikoekiko laguntzak edo maileguak itzultzeagatik sortutako zorrei buruzko eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena ere, geroratzeak eta/edo zatikatzeko eskaeraren parte ez badira.

c) Bideragarritasun- edo negozio-plana, administrazio-organoren onetsia, non jasotzen baitira ezarritako epean edo egutegian ordaintzea aldi batez eragozten duten ekonomia- eta finantza-zailtasunak gainditzeko hartuko diren neurriak, bai eta geroratzearen aurre egiteko negozioan aurreikusten den eboluzioa eta sartutako datuen justifikazioa ere.

Planaren denbora-eremuak, gutxienez, gerorapenerako eta/edo zatikapenerako eskatutako ordainketa-egutegiak hartzen duen aldia estaliko du.

Aurreikusitako finantza-egoeraren orriak jaso beharko ditu (egoera-balantzea, galera eta irabazien kontua eta diru-fluxuen egoera-orria, aurreikusten diren erabilgarritasun likidoak eta, horietatik, geroratutako eta/edo zatikatutako zorrak itzultzeko erabiliko direnak zehaztuta).

Eskaera 150.000 eurotik gorako zorrei buruzkoa bada, edo, errege lege-dekretu honen babesean egindako aurreko eskaerekin metatuta, 250.000 eurotik gorakoei buruzkoa, bideragarritasun- edo negozio-planarekin batera Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditore-txostena aurkeztu beharko da. Txosten horrek iritzi tekniko bat eman beharko du, eta bertan argi eta zehatz adierazi ea eskatzaileak plana egiteko erabili dituen hipotesiak eta aurreikuspenak arrazoizkoak diren irizpide ekonomikoen arabera, eta ea bertan jasotako zifrek euskarririk duten emandako kontabilitate-informazioan.

Bideragarritasun- edo negozio-planak eta auditorearen txostenak urtebeteko balioa izango dute, ematen direnetik hasita.

Agiri horiek lagungarri izan daitezke Zerga-bilketako Erregelamendu Orokorren 46. artikuluko 3.c) eta 5.d) letretan eskatzen diren baldintzak betetzen direla justifikatzeko.

d) Berme osoa edo partziala duten zorren kasuan, geroratutako eta/edo zatikatutako eragiketa jatorrizko zorraren baldintza berberetan berमतuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, bermatzaileak sinatuta. Bermeak Gordailuen Kutxa Orokorrean gordailatuta badaude, bermeok ordeztu egin beharko dira, abalaren estaldura geroratutako eta/edo zatikatutako eragiketetara hedatuz, eta, ordezkapena egiaztatzeko, Gordailuen Kutxa Orokorrean emandako frogagiriak aurkeztu beharko dira.

4. Ekonomia eta Ogasuneko Ordezkaritza eskudunak, artikuluan honetan ezarritako dokumentuak eta baldintzak egiaztatu ondoren, ebazpena eman ahal izango du, geroratzea eta/edo zatikatzea erabakitzeke, bermetik salbuetsita, honako baldintza hauen arabera:

a) Prozedura honen arabera geroratutako eta/edo zatikatutako zorrak berandutze-interesak sortuko ditu Ogasun Publikoaren alde, eta interes horiek Zerga-bilketako Erregelamendu Orokorren 53. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatu dira.

b) Ordaintzeko betebeharra duenak alde aurretik eskatuta, zorra ordaintzeko bi urtera arteko geroratze-aldia eman ahal izango da, dagokion mugaegunetik hasita, baita ondorengo 2 urtera arteko zatikatzea ere.

5. Errege lege-dekretu honetan aurreikusten ez denerako, Zerga-bilketako Erregelamendu Orokorra jasotzen dituen zuzenbide publikoko zorren ordaintza geroratzeko eta zatikatzeke arauak aplikatu dira osagarri gisa, 50. artikuluan xedatutakoa izan ezik.

6. Aurreko apartatuetan ezarritakoa aplikatu ahal izango zaie zorrak geroratzeko eta/edo zatikatzeke eskaerei, baldin eta jada hasita dauden prozedurei badagozkie eta errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunean oraindik ebazpenik eman ez bada, betiere artikuluan honetako aurreko apartatuetan ezarritako baldintzak betetzen badira eta beharrezkoa den dokumentazio gehigarria aurkezten bada.

7. Errege lege-dekretu honetan xedatutakoari ezin izango diote heldu ekainaren 9ko PCM/519/2020 Aginduan araututako prozeduraren arabera geroratutako eta/edo zatikatutako zorrak. Agindu horren bidez, I+G+b arloan inbertsio-intentsitate handia duten enpresa txiki eta ertainei egindako ordaintza geroratzeko eta zatikatzeke prozeduraren zenbait alderdi zehazten dira Ikerketa Aplikatu eta Elkarlana, INNFACTO eta Lankidetzaren Erronkak azpiprogrametako zenbait deialditarako.

Azken xedapenetako lehena. *5/2021 Errege Lege Dekretua, martxoaren 12koa, COVID-19aren pandemiari aurre egite aldera enpresen kaudimena bultzatzeko aparteko neurriena, aldatzea.*

Aldatzen da COVID-19aren pandemiari aurre egite aldera enpresen kaudimena bultzatzeko aparteko neurri buruzko martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretuaren 3. artikulua, eta testu honekin geratzen da:

«3. artikulua. *Hautagarritasun-betekizunen eta laguntzaren zenbatekoa finkatzeko irizpideen oinarritzko esparrua.*

1. Errege lege-dekretu honen ondorioetarako, honako hauek joko dira hartzailetzat:

a) I. eranskinean zehazten diren sektoreei atxikitako enpresaburuak edo profesionalak eta entitateak eta artikuluan honen 5. apartatuan ezarritakoaren arabera autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek beren lurraldean gehitzen dituztenak, baldin eta balio erantsiaren gaineko zergan edo zeharkako tributu baliokidean urteko eragiketa-bolumena % 30 baino gehiago jaitsi bada 2020. urtean 2019koarekin alderatuta. Informazio hori dagokion Zerga Administrazioak emango du, autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek eskatuta.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboaren araubidea aplikatzen duten enpresaburuak edo profesionalak, I. eranskinean zehaztutako sektoreei atxikita daudenak, eta artikuluan honen 5. paragrafoan ezarritakoaren arabera autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek beren lurraldean gehitzen dituztenak.

b) Sozietateen gaineko Zergan tributazio kontsolidatuaren araubidean ordaintzen duten talde kontsolidatuen kasuan, hautagarritasun- eta transferentzia-baldintzak betetzeari dagokionez, talde hori hartuko da hartzaile zergadun bakartzat, eta ez hura osatzen duen entitate bakoitza; beraz, jardueraren beherakada

zehazteko kontuan hartu beharreko eragiketa-bolumena taldea osatzen duten entitateen eragiketa-bolumen guztiak batzearen emaitza izango da.

c) Ez dira hartzailetzat joko aurreko bi epigrafeetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten enpresaburuak edo profesionalak, entitateak eta talde bateratuak, baldin eta 2019ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitopenean emaitza garbi negatiboa aitortu badute hura zehazteko zuzeneko zenbatespenaren metodoa aplikatu dieten jardura ekonomikoengatik edo, hala badagokio, ekitaldi horretan sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zerga-oinarria negatiboa izan bada, kapitalizazio-erreserba eta zerga-oinarri negatiboaren konpentsazioa aplikatu aurretik. Informazio hori dagokion zerga-administrazioak emango du, autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek eskatuta.

d) 2. artikuluan ezarritako esleipenaren barruan, autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek salbuespenak ezarri ahal izango dizkiete artikuluko honetako 1. apartatuko c) letran jasotako irizpideei, 2019an izandako salbuespeneko inguruabarrak kontuan hartuta, behar bezala justifikatuta.

2. Autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek ezarriko dituzte jasotzaile bakoitzeko laguntzetarako irizpideak, gehieneko muga hauek gainditu gabe:

a) 3.000 euro, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboaren araubidea aplikatzen duten enpresaburu edo profesionalen kasuan.

b) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren edo zeharkako tributu baliokidean enpresaburu eta profesionalak aitortu edo administrazioak egiaztatutako urteko eragiketen bolumena % 30 baino gehiago jaitsi bada 2020an 2019. urtearekin alderatuta, emango den gehieneko laguntza honako hau izango da:

i. 2020an, 2019arekin alderatuta, eragiketa-bolumenaren % 30etik gorako jaitzieraren bolumenaren % 40, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zuzeneko zenbatespenaren araubidea aplikatzen duten enpresaburu edo profesionalen kasuan, bai eta gehienez hamar langile dituzten entitate eta establezimendu iraunkorren kasuan ere.

ii. Hamar langile baino gehiago dituzten entitate eta enpresaburu edo profesionalen eta establezimendu iraunkorren kasuan, 2020. urtean, 2019. urtearekin alderatuta, eragiketen bolumenean izandako % 30 baino gehiagoko beherakadaren zenbatekoaren % 20.

Aurreko b) i eta b) ii apartatuetan xedatutakoa eragotzi gabe, laguntza ezin izango da 4.000 eurotik beherakoa izan, ezta 200.000 eurotik gorakoa ere.

c) 3.1.b) artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren taldeen kasuan, muga horiek talde osoari aplikatuko zaizkio.

d) Bigarren konpartimentuko autonomia-erkidegoek handitu ahal izango dituzte galeren estaldura-ehunekoak eta 3.2 artikuluko honetako b) .i eta b) .ii apartatuetan xedatutako laguntzen gehieneko mugak.

3. Autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek zehaztuko dituzte 1.d) letran jasotako kasuetarako aplikatu beharreko parametroak, bai eta kasu hauetarako ere: 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko martxoaren 31ra bitartean izandako altak edo sortutako enpresak, 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean merkataritza-sozietatearen egitura-aldaketa bat egin duten enpresak, eta 2019ko ekitaldian edo 2020ko ekitaldian urtebete baino gutxiago alta emanda egon diren enpresaburuak edo profesionalak.

4. Autonomia-erkidego batek baino gehiagok eta Ceuta eta Melilla hiriek titulu honetan aurreikusitako zuzeneko laguntzak esleitzeko egindako deialdietan parte hartu ahal izango da.

2020an 10 milioi euroko edo gutxiagoko eragiketa-bolumena izan duten enpresaburu, profesional edo entitateek, sozietateen gaineko zergaren taldeen

arabidea aplikatzen ez badute, zerga-egoitza duten autonomia-erkidegoak edo, hala badagokio, Ceuta eta Melilla hiriek egindako deialdian baino ezin izango dute parte hartu.

Beren jarduera ekonomiko autonomia-erkidego batean baino gehiagotan edo hiri autonomo batean baino gehiagotan egiten duten enpresaburuek, profesionalak edo entitateek, 2020an 10 milioi eurotik gorako eragiketa-bolumena izan badute, jarduten duten lurralde guztietan egiten diren deialdietan parte hartu ahal izango dute. Kasu horietarako, Ogasun Ministerioaren Errege Lege Dekretu hau garatzeko Aginduak jardueraren beherakada haien jarduera garatzen duten lurraldeen artean banatzeko irizpidea ezarriko du, lurralde bakoitzean dituzten langileei lan pertsonalagatik ordaindutako ordainsarien garrantzia kontuan hartuta.

5. Laguntza hauen hartzaileek egiaztatu beharko dute arau honen I. eranskinean aurreikusitako Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalako (EJSN 09) koderen batean sailkatutako jarduera bat dutela indarrean sartzen den unean.

Salbuespen gisa, eta 2. artikuluan ezarritako esleipenaren barruan, autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek zuzeneko laguntzak eman ahal izango dizkiete COVID lerro honen kargura Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalako (EJSN 09) Kodeetan sailkatuta dauden eta I. eranskinean sartuta ez dauden jardueretan atxikita dauden enpresei edo profesionalak edo entitateei, baldin eta beren lurraldean eragin berezia nozitu badute, beren deialdietan behar bezala justifikatuta.

6. Titulu honetan jasotzen diren zuzeneko laguntzak ezin izango dira eman 2021eko abenduaren 31 baino geroago».

Azken xedapenetako bigarrena. *Eskumen-titulua.*

Errege lege-dekretu hau Konstituzioaren 149.1. artikulua 13. eta 14. zenbakietan ezarritakoaren babespean ematen da, Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen baitiote, hurrenez hurren, jarduera ekonomikoaren plangintza orokorrari buruzko oinarrien eta koordinazioaren gainean eta Ogasun orokorraren gainean.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Indarrean sartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Madriren, 2021eko apirilaren 20an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN